


## ZER DA THREAT HUNTING?

Threat Hunting analistek segurtasun informatikoan aplikatutako defentsa-estrategia bat da, erakunde batentzat benetako arriskua izan daitezkeen mehatxuak proaktiboki bilatzean datzana.


## THREAT HUNTING HELBURUAK

Threat Hunting helburu nagusiak hauek dira:



### Sare baten barruan gertaera maltzurak detektatzea

Benetako arriskua eragin dezaketen eta nolabaiteko iraunkortasuna izan dezaketen gertaera maltzurak detektatu nahi dira.




### Gertaerei buruzko zehetasun teknikoak lortzea

Sare baten barruko maltzurkeriazko jarduera aztertu eta detektatu nahi da, gertaera maltzur bati buruzko informazio zehatza lortzeko. Gertaera hori arintzeko eta etorkizuneko istiluak saihesteko erabiltzen da.



### Etorkizuneko gertaera maltzurren prebentzioa

Mehatxuak atzeman ahal izateko beharrezkoak diren ezagutzak eman nahi dizkie adituei, mehatxuak gauzatu aurretik, edo behar diren segurtasun neurriak aplikatu.







### Babes maila handiagoa ematea

Erakunde bat arriskuan jar dezaketen egungo eta etorkizuneko arriskuak ezagutzeak arintze neurri eraginkorrek aplikatzea ahalbidetzen du.

## THREAT HUNTING ONURAK

Threat Hunting onura nagusiak hauek dira:

- 
**Mehatxuen detekzio goiztiarra:** segurtasun-ekipoei mehatxuak eta jarduera maltzurak garaiz identifikatzeko aukera ematen die, eta mehatxuak arindu egin ditzake erakunde bati eragin aurretik.
- 
**Arriskuak murriztea:** mehatxu-egileek erabiltzen dituzten teknikak ezagutzeak aukera ematen du erakunde baten barruan beharrezko baliabideak esleitzeko, gertaera maltzur bati erantzun goiztiarra emateko.
- 
**Gertaerei berehala erantzutea:** sare baten jardueraren etengabeko monitorizazioa dela eta, segurtasun-adituek gertaeraren bat garaiz detektatu eta arindu dezakete.
- 
**Erabakiak hartzeko modua hobetzea:** segurtasun-arduradunek kudeaketa egokia egin dezakete jarduera maltzurak arintzeko.



Cyberzaintzak, Euskadiko Zibersegurtasun Agentziak, edozein erakunderen eskura jartzen du "[Zibersegurtasun katalogoa](#)", eta bertan aurkituko ditu Threat Hunting-en adituak diren hornitzaileak.